

Euskaldunei euskeraz Iurreko eleizan... Bilbao, Grijelmo, 1915.

Oratio inauguralis in Seminario Conciliari Victoriensi. Cursus 1903-4. Victoriae: Impr. Pujol 1903, 32 orr.

IV

BESTE LAN BATZU

Emakume-bizitzaz, "Euzkadi" egunerokoan artikulua. Orretariko batek "Kirikiño Saria, 1930" emon eutsan.

Gizarte-auzia, 1935, liburu taxuan, "Ekin"-en agertu lanen bilduma.

Erri-ohituretzakoa: Kaxarrankaren gorabeherak eta Auriako jaia. Itzaldia, Donostian, 1927 gn. urtean. RIEV 1927, XVIII, 422/26.

J. B. EGUZKITZA'REN ELEIZ-IDAIZLANAK

A. S. Onaindia

Gai auxe emon daustie, Eguzkitza, erri onetako seme argia goratuteko. Iru ataletan banatuko dot berau: 1) *Eguzkitza, eleiz-gizon*: 2) *Eguzkitza, sermolari*, ta 3) *Eguzkitza, eleiz-idazle*.

Eguzkitza, eleiz-gizon.—Gizaseme aundi baten eun urterrena ospatzen gagoz. Eguzkitza andi agertzen yaku, bai, euskal literaturan. Eta ementxe munduratua da, Ibaizabal ertzean, zugatz eta solo artean; ementxe, ainbeste auts ezpa leuke, eder-ederra litzaken erri onetan. Egun argi batean igon or goiko arkaitz gaiñera, ta begiratu ezker-eskuma, ta zeuk

esango: "Zoragarria bai Lemoa, Aramotz, Lemoatx eta Arraño-bizkar begira dituala! Gaur, zemento-frabika ta abar, naikoa loi daukagu, kutsutua; len garbi etorren Ibaizabal gaur zikin eta narras dabil.

Eta ementxe, len zoragarri zan eta gaur be izan bear leukean erri onetan jaio zan Eguzkitza, euskal idazle jatorra. Ementxe azi zan, ume, mutiko, gazte. Ba-dau onek zer-ikusia giza-istorian. Azi eta ezi. Zer da umetxoa, jaio ostein? Ezeuki naiz aberats izan jaio dan ogea, ez dausku ardura. Izaki txiki orrek, umetxo orrek ez daki zer dan bizitza, zer eskubide daukan, zelako neke ta atsekabeak izango dituan. Zelako nortasunaren jabe izango ete? Oraindik "zer" kaskarra da, aul eta pitin. Berez, negar egiten daki bakar-bakarrik.

Baiña or dau biotz bat, amarena, beroa eskinka. Bizitza zear biotz ori izango dau gidari, esku guri. Orrek, amak oratuko dautso eskutik eta bide artezez zuzendu galdu ez dedin, bear dauana ikasi dagian. Semea azi ta ezi, or amaren lana; semeak or dau guztia, amaren ardura ta berotasuna. Jainkoak, beti on eta jakintsu, ama ezarri euskun ondoan. Kuma, ta umetxoa bertan, bai eder! Erromatarren kumak, seaskak, itxas-ontzi itxura eukan. Nok zuzenduko umearen ontzi txikia? Amak. Hungria'n, ostera, antxiñako baten, zugatz batek bestera lotuta eukiten ei eben kumea. Ta antxe, zugatziko kantutuan, geroko gizon bat, erri bat lotan.

Gure artean, amak oin-puntakaz kulunkatu oi dau kuma luzanga erdi-biribilla, eskuz zerbait dagian bitartean. Zer egiten? Zer ezartzen? Gure amak zer ezartzen kumeari, ume-oxoari? Bere arnasa, nortasuna, euskalduntasuna, arima, gizaldiz gizaldi gure odol eta gogoan datorren zerbait, ezin-esana bear bada.

Eguzkitzaren ama, ama aundia izan zan: ez izan dudarik. Semea aundituz joian, eta eskola asi; ama pozik bere errai zatiak liburu zaletasuna ekarrelako. Seme orren ariman sartu ta barrendu nai eban bere biotza, bere izatea, leza orretan zer eukan jakin nairik. Ikasiz joian, ez egoan atzen eskolan; argi ta bizkor ikusten eban gramatikan, dotriñan, izkuntzetan, eta au pozgarri yakon. Mutiko egiñaz doa, ta amak min dau biotzean: txiki ta tolesgabe nai leuke beti. Aundi egiñik, izango ditu burruka ta ekaitzak; baiña berak lagunduko dautsa, onbidetik ibilli daiten. Eskola askoren jabe egin da.

Egun batean, geiago ikasi nai leukela-ta, Ikastetxe aundi batera joateko gogoia erakutsi eban; ondo eretxan gurasoai. Garai aretan be entzutetsua zan Zornotza'ko Latin-eskolea. Ara bialdu eben. Oso aurreratua ebillen emen be. Gurasoen poza! Ikasle on eta guraso-zale zan. Gurasoak, jakiña, lanari ekin bear semearen ikasketa ta gaiñerakoak ordaintzeko, baiña atan be pozik.

Beste bein, ezkutu bat eukala-ta, amari iragari nai bera; amak esango eutsan aitari. Ixilka iragarri eutsan: "Amatxo, abade izan gura dot!" Negar? Gorputz-ikara? Bai zera! Zelako argi-diztira ama-semeen begietan! Asazkatu da semea. Amari, ostera, indar barriz aunditu yako barrua, Eleiz-gizon izango da bere semea! Au aundia, au poza!

Eta urrengo udazkenean, Zornotza'ari agur egiñik, Gasteiz'-ko Abadegai Ikastetxera joan zan Filosofia ta Teolojia ikasten. Sei-zazpi urte emon ebazan ortan, ikasi ta ikasi. Gai orreikaz batera izkuntzak be —latin, griego, frantses ta abar— ikasi zituan. Nota onak atera oi zituan urtero. Eta gero, oportaldietan, gurasoen ondora, onei laguntzen.

Berak diñosku: "Gazteizko neure ikastaroa amaitu ezkerro, egunik galdu gabe, neure etxe-zulora, gurasoen ondora, itzultzen nintzan, beste neure ikaskideak lez, ni be alai ta pozez". Gurasoai lotsa ta begirune aundia eutsen Eguzkitzak.

Azkenez eleiz-karrera amaitu ta orduan Gasteiz'en gotzain egoan Ramon F. Pierola'ren eskuetatik artu eban abadetasuna 1899-gko. gabonillaren ogei ta batean. Etzan poz makala izango Eguzkitza gurasoen etxean eta Lemona'tarren artean erriko eleizan bertako semeak lenengoz meza emon eban egunean! Beti izan oi da, ba, jazokun alaia. Gurasoen amesik ederrena betea zan. Lemonak eliz-gizon argi, jakintsu ta on bat eukan.

Abade eginda gero, Gasteiz'ko Ikastetxean bertan gelditu zan maixu; grammarika ta erretorika erakutsi zituan urte batzuetan; orduantxe osotu eban Lizenziatura karrera. Irakasle ta ikasle zoli ta arduratsua agertzen zan nun-nai. 1903'an, urrillaren lenengoan, ikastaro barriari asiera emoterakoan, berak euki eban itzaldia, orduko gotzain Cadena y Eleta, Ikastetxeko maixu-lagunak eta ikasle mordoa entzule zituala. Latiñez egin eban itzaldia, ta ortik errez atera geinkenez,

ondo ezagutzen ebazan ordurako Horati ta Birjiliren olerki ta poesilanak.

Lau zatitan banandu euskun itzaldia: 1) *Ederra ta bere ingura*; 2) Eder-erak, arri-irudiak, margo irudiak eta musika; guztion artean mintzozko edo itzezko ertiak dau txapela; 3) Horatiren bertsoak azaltzen ditu, ta Birjilioren lana, Eneida, eder-sundaz betea; 4) danok jakin bear genuke gramatika ta erretorika, geure inguruan eta barruan pilpilka daukagun ederra jaso ta adierazten jakin dagigun.

Ondoren Lekeitio'n egin eban bere erakustea, arrezkero guztian egin be. 1904'an joan zan ara, ta gerrararte antxe ekin eutson bere arloari, irakaskintzari ain zuzen. Eleiz-karrera ikase nai ebenentzako zan ango eskola, berak ainbat urtez zuzendu ebana. Oindiño ba-eban alan be astia erriz erri itzaldiak egin, aldizkarietan lanak idatzi, Euskaltzaindiara txostenak eroan, umetxoentzat kristiñau-Ikasbide egunak gertatu, ta abar osotzeko. Arazo berberean ia ogetamar urte igaro arren, pozik aurkitzen zan.

Eleiz-gizon genduan, eta ez egoan lo egiterik. Abadeak, izan be, nun-naitik begiratuta, osoa izan bear dau; beti ikasiz ta osoagotuz doana. Onetzaz entzun M. Lekuona'k diñoskuna: "Apaiza zala esan bearrik ez dago —aren idazlanai galde—. Eta nolanaiko apaiza, izan ere. Jaungoikozkoa benetan, eta benetan jakintsu, gañera. Buruz ondotxo jantzia, berez eta ikastez. Oldozpen sakon eta argia. Itz ondo ebakia. Jardu-nean eta lagunartean, itz-murritza. Aurpegi irritsua orraitik. Lanean, langille gotorra, aspertze gabea. Akademiz Licentia-tua" (*Eusker*a, 1953, 39 or.).

Eguzkitza, sermolari.—Gure artean ba-dira - ta nun ez? gizon jakitun batzuk, bizitza osoan ikasi ta ikasi egin dabena. Norentzat jakituri guzti ori? Urkoari ez al dautsagu erakutsi bear? Batak besteari emoteko ez ete dogu ikasten? Ala, emen be, geurekoi utsak izango? Gizonak gizona jaso, eskolatu ta duindu bear dau. Ortan saiatu naia dakusgu gaur batez be, guztiok, elburu bat billatuz, betiko atsedeen zoriontsura jo dagigun.

Au egin eban Eguzkitzak. Jainkoak emoniko doai ta gaitasunak, talentuak, etzitun beretzat bakarrik gorde; ugaritu ta besteai zabaldu baiño. Berbaz erakusteari gagokiozala, gogo-

ra daiguzan lemoatar argiak erriz erri egindako itzaldiak, baita ainbat euskal egun eta jaietan esanak be. Ortik ikusi daikegu guztiontzat eredu bikain dogula.

Itzaldi edo sermoi orrein mamiña ausnartuz, bertatik ikusten doguna auxe dozue: Eguzkitzak beti, fedea ta euskara, korapillo samurrez lotu ta estutzen dauskuzala. Erri baten arimea, izan be, berak darabilen izkuntzan, berbetan agertzen yaku iñon baiño obeto. Orixegaitik, besteak beste, "euskaldun fededun" esan oi zan ao batean, lenago; euskeraz mintzatzen zanak fedea be zainduko eban. Gaur oraindik beste ainbeste esan daikegu, egiari zor yakona emotera ezkerero. Euskera galdu dauanak, kristiñau fedea be laster bertan bera itxiko; eta kristiñau federik ez dauanak ez dautsa bere izkuntzari luzaro eutsiko. Edo biak, edo bapez; ez dago besterik.

Gorputzaz gaiñera, arima, goi-arnas bat be barren aldean dogun ezkerero, atal biok osotzen dabe gure izatea, gure gizontasuna edo emakumetasuna; labur, gure nortasuna. Naiz norbaitena izan, naiz erriarena, nortasun ortatik jagiten da ondorenez ezpan-gaiñ darabilgun izkuntza, barruan daroagun arnasa ta fede-indar lez jagi be. Gure izkuntza geure odolletiko zerbait da, baita goi-arnasaz mamindutako fedea deritxogun zer ori be. Bata ta bestea, suster bateko landarak dira-ta, ezin ditugu alkarrengandik banatu, bata edo bestea txikitu ta ondatu barik.

Euskaldunak lenago berez, bere izatetik sortzen yakon erlejiñoa eban, Kristoren aurreko gizatalde geienak legez; gerora, orain bi milla bat urtetik, apurka apurka, Kristoren irakatsiak besarkatu zituan, lengo zarra, izatezkoa itxi gabe. Eta arrezkeroztikoa dogu aitaturiko esakuna: "Euskaldun fededun"; obeto esanda: "Euskaldun Kristotar". Gaur, txoro antzera, tasun biok geure erriari kendu nairik gabiltza. Ezta lan erreza izango, errai-mamiñean ain josia daroaguna nekez iztekoa da-ta. Arriskutan dagozanik, baiña, ezin uka. Naste ta istillu askotxo daukaguz gaur gutartean; era askotako jentea, gizarte aldakuntzak, arerioak ditugu ixilka ta agirian, guri daukaguzan ederdoaiak lapurtu guraz. Gu, ez euskaldun ez fededun gareala, ikusi naiean nunbait.

Arrisku au argi ikusten eban Eguzkitzak bere denporan be. Aldendu bako antsi bat, artegatasun bat eroian biotzean: euskara galdu ezkerero, gure erriarenak egin dau, gure erri

fededunarenak batez be. "Jaunak emon eutsen —diño— gure asabai ta oneik itxi dauskue guri. Jaunak emondako izkuntza onek Jaunagana garoaz... Orain arte beintzat, euskera, gure siñesmenaren lagun andia, aizkide laztan-kutuna izan da. Kristiñau izatea beste lurreko arazo guztiak baño zerbait geyagotan daukagunok, auxegaitik bakarrik be euskera maite-maite izan bear geunke. Izkuntza zearo galtzeak errien siñismena eta oitura onai be kalteak dakarzkie" (*Arrasate'ko Itzaldia, 11 or.*)

Kezka orrek jota ibilteak, orraitino, egundako mesedea egin eutsan Eguzkitzari, eta bide batez euskereari; olan izan ezpalitz, ez euskun, nik uste, egin euskun besteko euskal lanik burutuko. Gure zatirik beiñena ta arazorik benetakoena barru-bizia dala ikusirik, bere asmo ta gurariak euskeraz adierazten alegindu zan; au da: barruan eroiana itzez eta idatziz, lumaz, gaur gozo ta biar latz, besteai be erakusten alegiñak alegin egin ebazan, euskaldun enparauak be asmo ta elburu bardiñerantza zuzendu naiez.

Ortarako, esan dogu, aurrenik ikasi egin eban, bera buruz ta biotzez jantzi. Ondoren euskara errotu ta benetan sakon ikasi; umetatik ekian ederto samar, baiña ori etzan naikoa; Gasteiz'en ikasle zala, ta maixu gero, beste gaiakaz bat, euskal arloari gogoz ekin eutsan. Berak diñoskunik atera geinke zelako zaletasuna ekarren gatzetaik. Ona zer ikusi ta zer egin oi eban oporraldietan, ementxe Lemona'n. "Nere erriko apezak —diño—, arratsalde oroz, ango Jaun baten etxean baten ziran, eta arratsalde apalean, zerbait irakurtzeko asmoz, ara joaten nintzan ni ere. Urte baten -zein izan zan ez dizuet esango, ezpanaiz oroitzen gutxi gora-bera baizik- irakurgai berri bat arkitu nuan etxe artan: Azkue jaunaren EUSKALZALE. Erderazko albistariak, ikustalditxo bat eman ondoren, sakelean sartu ta beren etxeetara eramaten zituzten apez jaunak, gero asti geyagoz eta zeatzago irakurtzeko asmoz. EUSKALZALE... ez.

"Euskera zailla zakarrela... irakurri ere ezin zutela... begiak nekarazi ta buruak austeko egiña zirudiala... au zala... ori zala... beren etxeetara eraman ere ez zuten nai izaten. Iru zenbakitatik bi gutxienez an uzten zituzten beti, eta neronek artu ta nere etxera eraman ezpa' nitu, an geldituko ziran, iñori bururik ausi gabe" (*Euskera, 1926, 26 or.*).

Ondoren irakurri ebana Txomin Agirre'ren *Auñemendiko Lorea* izan zan. Eder izan yakon. Orrelaxe, irakurri ta idatzi egin yakun idazle bikain. Euskaltzaindia sortu zanerako ainbat lan egiña zan, eta Bizkai aldeko euskaltzaiñen artean artu eben lenengo-lenengotik. Orduko idatziak zituan *Arimen illa* ta *Loretako Illa*; gero etorriko ziran beste lanak. Arrezkero, euskal jai bat zala? Itzaldia egiteko, an zan Eguzkitza. 1921'an Euskal Eguna Durango'n, Euskaltzaindiak eratuta: J. B. Eguzkitzak itzaldi bi egin euskuzan, J. Mateo Zabalar buruz bata; bestea, illaren 8'an, meza nagusitan egiñikoa. Aita Zabala, prantziskotarra, Bilbao'n jaioa dogu an 1777 garren urtean; eliz-izlari eder Bizkaian eta Gipuzkoa'an; Bizkaia'n darabilgun aditza, berboa, dala-ta lan eder bat osotu euskun, eta auxe da Eguzkitzak bere itzaldi jakingarrian aztertzen dauana.

Eleizako itzaldian, beti bere barruko kezka arindu nairik, onela iñoan: "Gogo edo arimearen ispillua arpegia dala sarritan entzun eta esan dogu; baña antziñako elendarrak, greziatar jakitunak, guk baño zuzenago, gogoaren ispillua, arpegia ez, izkuntza bai, izkuntza zala esaten eben. Gogoaren itz eta abotsen barreneko izkuntza ta azalekoaren arteko inkunde ta artu-emonak zeatz adieraztea egiñen zailtxua da, ziñez; baña batabesteaz alkartasun estua ta zerikusi andia daukela iñork be ezin ukatu legi. Eta egiz: gure gogoak sortutako gogapen, irudi, antz, asmo ta gurariak izkuntzaren bidez agertu ta azaltzen doguz; baña izkuntzak berak be, gure barrenean sortzen direan gogorapen, asmo ta gurari orrei berarizko jas eta tayua, izakera ta egidamu berezia arrerazten dautse: augaitik edozein izkuntza ta berau darabillan erria alkarrekin estu-estu lotuta dagoz, eta alkarrekin estu ta ertsi lotuak dagozalako, izkuntza aldatzea edozein errirentzat bere gogoaren izakera berezi ori aldatzea izan oi da; baña aldaketa onek, erriak asabakandik artu dituan siñiste ta oiturai kalte baño besterik ezin egin legioela, itsua ez dan edonok dakus eta edonok daki" (*Itzaldia*, 1922, 123 of.)

Ondoren euskera galtzeak gure izkuntzari ekarriko leuskiozan gaitz eta kalteak azaltzen dauskuz; euskerearen etsai ta arerioak aitatzen ditu, eta onein poza gure izkuntzaren kaltez zerbait egindu edo egiten danean. Arako Combes, kristiñau izenaren arerio zitalak, 1903'an, Prantzia'ko agintari zala,

Euskalerriko eleizetan itzaldiak euskeraz egitea galazo eba-
nean, bere lagun eta adiskideak, txalo beroak jo eutsoezan.
Berez, diño Eguzkitzak "gure siñesteari gorroto dautsen etsai
oneik, gure euskereari be gorroto dautse: geure siñeste ta
ekandu onak maite doguzanak, euskerea be maite izan bear
dogu: aek siñestea galdu nai dabelako, euskerea be galdu nai
dabe: guk geure siñestea jagon eta zaindu nai dogulako, eus-
kerea be jagon eta zaindu, sendotu ta bizkortu egin bear
dogu" (*Loc. cit.*, 127 of.)

Euskalerriri beti zintzo izaten, Jainkoaz ta urko-
lagunakaz ain zuzen be, euskera maiteak laguntzen dautsa.
"Edonorantz begiratuaz dakusguzan mendiak, zapaltzen
doguzan bideak, bizi garen etxeak, geure errietako iturri,
ibai, solo, bazter eta zokondo guztiak, ildegietako geure arba-
soen azurrak, aizeak darabillan autsak, nozbait, bear bada,
geure guraso ta asaben gorputz eta aragi izan zan auts orrek,
euskerea geure-geurea dogula diñoskue. Eta geure asaba
onen oroipen edo gomutea, geure biotzen bitxia, geure odola-
ren bitsa, geure izatearen usaña, geure gogoen arnasa dalako,
asaba ta ondorengoan arteko lokarri ta txibistun biziã dan
euskera onek, geure arbaso ta aurretikoaren beste ezek baño
estu ta ertsiago alkartu, batu ta lotzen gaitu; baña asaben
siñestean sendo ta ekanduetan garbi irauteko, eurakin estu ta
ertsi lotuta, gogoz eta biotzez bat-eginda egotea baño oberik
ete dago? Ez!" (*Loc. cit.*, 127 of.)

Aurretikoengandiko gutzia astindu gurata gabiltz gaur.
Au ete bide egokia geure-geure ditugun betiko balioak zain-
tzeko? Gure gurasoen gauzak biotzean ondo barrendu ta arei-
kin biotzez bat-egin bear dogula diñosku Eguzkitzak. Barria
zarragaz ta zarra barriagaz nastaurik, okiñak lez ore mam-
orra egin bearrean gagoz. Zarrak balio aundiak daukiez, baita
gazteak be.

1923'an Naparruko Doneztebe'n Euskal Eguna, Euskal-
tzaindiak eratuta au be: Eguzkitza euskalzaiñaren itzaldia an
be, Elkano'ko Lizarraga'ren bizita ta euskal lanak gai arturik.
1925'an Azpeiti'ko Udal-etxean, Karmelo Etxegarai jaunaren
Euskaltzaindian sartzea: J. B. Eguzkitzak egin eutson eran-
tzun itzaldia. Bardin, 1919'an, Andoain'en, Larramendi'ren
omenez ospatu eben Euskal-Egunean be, mezako itzaldian
J. G. Eguzkitzak oso ederki azalduz "Euskaldun fededun"

esaerak zer esan nai dauan. Onein artean, 1914'an, Yurre'ko eleizan, "Euskaldunei euzkeraz" gaitzat artuta, Kristau-Irakaskintza zabalkundea eritxan abade bazkunaren batzar nagusi egunean egiña be entzute aundikoa izan zan.

Eguzkitza ugaria zan, zein izlari ta zein idazle bezela. Il zanean sermoi pilloak itxi zituan. Gaur, nire ustez esku onetan dagoz, baña ez dakit ziur nun dagozan. Amabost bat urte dirala, Zirilo Artzubiaga jaunak, bera zaartu egin zala-ta, Eguzkitza'ren esku-idatzi danak emon eustazan nik eurak argitaratzeko biderik baldin ba'neban, arazo ori neure lepo ta eskuetan artu nengiala eskatuaz. Otzandiotar abade langillea il zanean, 1966'an, arek eukazan liburu ta idatzien jabe Bilbao'ko emakume talde bat egin zan: nik neukazan be eurak eroan ebezan, eta arrezkero ez dot izan esku-idatzi edo manuskrito arein barririk.

Dana dala, idatzi areik askotxo ziran, itzaldiak danak, berak or-emen egindakoak —Santuenak, Garizumakoak, Jaierak eta abar—. Argitaratzeko asmoz nenbillen; inprenta kontuak eta eralgi-bearrak eskuratuta neukazan, baita zelan argitaratu be: Iru liburu izango ziran, naikoa lodiak. Baña nire asmo ta lanak bide erdian geratu ziran porrot eginda. Egunen baten ikusiko al dabe idatzi orreik merezi daben eguzki argia!

Eguzkitza, eleiz-idazle.—Eguzkitzak bizkor erabilten eban bere luma. Ta urteetan bere zeregiñik beiñena erakustea izanik be, asti-orduetan idazteari ekin oi eutson. Bere bizitza guztian, esate baterako, idatzi eban Zornotzan argitaratzen zan abadeen aldizkari "Jaungoiko-Zale"-n; baita "Euskera", RIEV, "Euzkadi", "Yakintza" ta olakoetan be. Idazle ederra dogu beti: gaiak illunak edo-ta gitxi erabiliak izan arren, argi ta ulertzeko errez urtetan ziran Eguzkitzaren luma ariñetik.

Aitatu doguzan eleiz-sermoi ta itzaldiakaz gaiñera, beti eleiz gaien barruan, Iru liburu oneik daukaguz: 1) *Garbitokiko Arimaen Illa* (Bilbao, 1915); 2) *Andra Maria'ren Loretako Illa* (Zornotza, 1919), ta 3) *Argi Donea* (Zornotza, 1933 ta 1935). Bizkaieraz.

Liburu txikia, baiña mamintsua dozu lenengoa. 112 orrialde daukaz. Sardá y Salvany'k erderaz egiña dogu, euskeraz ipiñita. Ederto ta txukun azaltzen dau eleiz-gaia, euske-

ra oparoan. Azillako illa onek iru bederatzuurren eta iru-urren bat dakaz. Lenengo bederatzuurrenean Garbitokia zer dan eta arima errukarriai geinkeoen laguntza erakusten dausku; bigarreanean, zeintzuk diran Garbitokian ordaindu ta garbitzen diran utsegite ta orbanak; irugarranean, zelako egiteekin lagundu daikeguzan arima gaxuak. Azkenengo iru-urrenean erakusten dausku Garbitokia aintzat ez artzea ta beratzako bildur larregia, biak kaltegarri dirala.

Ona zatitxo au, zelan idazten eban jakin daigun. Garbitokia ta jarraibide ona dau titulu. "Ba-leiteke —diño— gutariko batek baño geyagok bere barruan kezka askotxu eukitea, gogoratzen daunean bere jarraibide dongakaz, baten baño sarrijago emon dautsala aurrekoari ogen edo pekaturako bidea; berak gaiztakerijak egiten irakatsi eutselako, arima bat baño geyago biar ba-da, orain garbitokijan egongo dirala. Geure autuetan eta geure egitadetan ardura bakuak eta buru ariñak ixaten garialako, bildur ixateko da, geuk uste dogun baño sarrijago emoten ete dautsagun aurrekuari txarrerako oña, gaiztakerirako bidea. Augaitik gauza ona ta kristiñau zintzo guztijok euki biar geunken oitura edo ekandua da, geure erruz, biar ba-da, garbitokijan dagozan arimaen alde, berarizko eran eta sarrijagotan, geure otoi, erregu ta eskarijak zuzendutea. Edonok dakus, ba, geuk bide dongea erakutsi geuntsalako, norbait garbitokira jua ba-da, beria ezeze geuria be bai dala erruba; eta geure jarraibide txarrakaz kalte egin geuntsalako, biarkun edo obligaziño estuagua daukagula berari, al dogun bestian, lagundu ta egin geuntsazan kaltien ordaña, albait ondoen, emoteko" (103 of).

Bigarrena "*Loretako Illa*" da; liburu ederra au be, 290 orrialdekoa. Barriro diñot: idazti eder-ederra, gaiez, mamiñez, eta izkeraz, euskeraz. Abaraska baizen gozo ta leuna. Argiratu zanetik, Bizkaiko eleiz-gizonak batez be, aspertu barik, eskuetan erabillitakoa: beronek dakaz kristiñau-onoimen edo birtuteak, beste iñok baiño obeto, apain be apain adierazo ta azaldurik. Eleiz-gizonak, abandek eta prailleak ezeze, erritarrak be, ainbat lekutan, maiatzeko illean baitik bat, etxeetan, ermitetan eta eleizetan, euren otoitz eta irakurtaldiak egiteko, eskuetan erabilli dabe. Euskera bikaiña darabil, joskera euskaldun-euskalduna, aditz edo berboan eztau eragozpenik ezagutzen.

Irugarrena "Argi Donea" dozue. 734 orrialdeko liburua; azken urteotan Gipuzkoan eta Bizkaian beintzat, mesede ikaragarria egin izan dauskuna. Baltzola'tar Prantzisko Aitak idatzi eban gipuzkeraz, eta Eguzkitzak bizkaieraz jarri, ta Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale" bazkunak argitara ekarri.

Eguzkitzak, bizkaieraz ipintean, onan idatzi euskun: "Liburua gipuzkoerez agertu zan lenengoz. Donostia'ko "Argia"-ren arduraz ta ordañez. Esku artean erabilli eben abade-lagun askori entzun geutsen orduan: "Bizkaian be onakoxe baten bearrean gagoz eta auxe berau, gure euskeraz ba'lego, ondo baño obeto letorkigu". Orren nai ziñanok, emen daukazue "Argi Donea" Bizkaiko euskeraz, zerbait aldatuta, baño guttiz gitxi. Gipuzkeraz eta Bizkaieraz Meza liburu bat eta bardiña eukitea egoki litzakela-ta, Bizkaï'ko euskaldunak errezago aitu edo ulertzeko bear zana baño beste gauza andirik ez dogu aldatu" (*Irakurleari*, V of.)

Gauza asko dakaz liburu mardul onek: goizeko ta arratsaldeko otoitzak, aitortza ta Jaunartzea, Meza deuna, eraspen edo deboziñoak, arratsaldeko Bezperak, Eleiz urtearen azalpena ta Ebanjelioak, gogaketa edo meditaziñoak, eleiz abestiak, eta abar.

Itzaldi-pilloa ta iru liburu onexek dira J. B. Eguzkitzaren eleiz-lanik garrantzitsu ta onenak.

—oOo—

Orain, gure jakin-griñak ez dau amairik eta, Eguzkitzak zelako idazkera edo estiloa eukan ikusiko dogu, labur-labur.

Idazle ugari ta oparoa zan Eguzkitza bere lan osoari begitu bat egin ezkeru. Ume ta gazteak ikastetxeetan emoten daben buruko miña ta lana ez da geienez urria izaten. Lemoararak, alan be, tartekan marteka idatzi egiten eban, lumeari eragin. Idaztean, ostera, gaia ikasi oi eban lenengo, zeatz eta sakon; gero euskeraz oldoztu, pentsatu, euskeraz ausnartu ta euskeraz idatzi, eskribidu. Orrelaxe lortu eban idazteko erreztasun izugarria, baita idazteko estilo bere-berea be, idazle guztiok bakotxak berea izan izan oi dogun lez. Eta ikusi noraiño eldu zan. Orixe'k au idatzi eban beifñola: "...nire us-tez orainarte izan dogun euskal idazlerik bikaiñena" dogu Eguzkitza.

Bai, euskal idazlerik geienak oso goi ipiñi izan dabe gure Lemoar azkarra. Manuel Lekuonak onela: "Prosa oparoa, itz ondo neurtua, joskera jatorra —bizkaieraz gutxitxo bezelakoa—; aundikeri puztu ta anpaturik gabea; dana adi-errez; itxuraz xalo, bañan estilo ondotoxo landua, beaztoporik gabekoa... kirru leuna gorulari trebearen eskuan antzo" (*Euskera*, 1953, 39 or.)

Eta K. Etxenagusiak: "Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitza'k: argi, otz, zuzen, kontuz... Bear bada, astunegitxua egiten jaku, luzarora bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatikako legeai lotuegi edo dalako" (*E. I. Lorategia*, 231 of.)

Arratia'ko izkelgi edo dialektua darabil; ez gero oni geiegi loturik, zabal eta ikasia baiño. Aditza, bizkaitar aditza trebe ta nasai darabil beti. Alan eta guzti be, ba ei ditu bere akatsak, utsak, edozein idazlek izan oi dabezan lez. Gramatika legeak zeatzegi zaintzen ei dauz, eta ortik sortzen yako irakurtean astun samarra izatea. Egia ete? Baita norbaitek esan dau irudimen gitxi daukala. Egia ete? Eritxi-emoilleak eta kritikalariak sarri edozer gauza esaten dabena, ba-dakizue. Literatura gauzetan, gaiñera, zenbat buru ainbat aburu, zenbat irakurle ainbat eritxi.

Beraz —amaitzeko—, atsegin yatzuen ala ez zeuek ikusi daizuen, urrengo zati au irakurriko dautzuet. Ba-dakizue, edo jakin bear zeunkie, an gerra aurretik "Karikiño Sari" bat zala, Donosti'ko "Euskaltzaleak" bazkunak 1929'an jarrita. Lenengoa Orixe'k irabazi eban, eta bigarrena, au da, 1930'-garren urtekoa, Eguzkitza jaunak. "Emakume Euskotarra" zala-ta lan eder bat idatzi eban. Entzun zatitxo au.

"Naiz soñez naiz gogoz emakume euskotarra baiño oso ta orniduagorik, gutxi lur zabalean. Azbegi egokiak ditu, margo gorrizuri, begi zoli, begirakun mazal eta garbi. Gorputzez lerdan, lirain, txairo, sendo, bizi ta bizkorra da: ori dala-ta batek baiño geiagok emakume eredutzat artu dabe. Giltzak lokabe, gerria malgu, giarrak zauli, zanak bizi ditu. Oiñez bide luzeak egiten gitxik irabazi dautsoe: buruan zama astuna dauala txairo ibiltan, iñok be ez.

"Latziñean bedar ebaten, soloan laietan, itaurrean, itzain, bateletan arraunlari, kaletan soinlari, itxasontziak bete ta utsitzen, naiz buruan zorro andia dauala, kalean zear

ikusi daben arrotzak, arrituta gelditu dira ta emakume euskotarraren gora andiak egin dabez. Izan be, indarraz gaiñera, berarizko ganora ta yasa daukaz orretarako emakume euskotarrak...

“Garbi ta langillea da emakume euskotarra. Soiñekoak naiz oe-azalak ikuzi ta garbitzen diarduanean, esku ta atzak bereak ditu: eun eta miesak edurra baizen zuri ipinten eta etxeakoak txukun eta garbi erabilten ba-daki. Etxetik ataz lanik astun eta gogorrenetan laguntzen dautso gizonari eta etxeke zeregiñak ondo egiten oni irabaziko dautsen emakume gutxi. Gizon-laguntza barik, etxe ta bazterra ondo zaindu, umeak ondo azi ta etorkizunari arpegi emon dautsen emakume alargunak ezautu doguz.

“Irudimen bizi, buru argi ta biotz samurra daukaz. Berarizko ikasketarik egin ez arren be, eguneroko arazoetan badauki urtenbide egokiten. Azalez bena, barrenez alai... mazal, adikor eta laztantxu” (*Yakintza*, 1935, 86 of.)

Auxe dozue Eguzkitzaren idazkera, estiloa. Jori, ugari ta bizia. Auxe da gure gizona: abade zintzo ta idazle bizkor. Gure artekoa; gure artean jaio, bizkortu ta zintzotua. Guk zer? Egoki yaku onako gizonak goratzea, onako gizonak eredutzat artu ta geure oiñak arein oiñatzetan ipiñiaz, arei jarraitzea. Orrela bedi.

JOAN-BATISTA EGUZKITZA-RI

Lemoa-n, 1975-IX-28

Doinua: Markesaren Alaba-rena

0)
Mila beratzi-reun'ta
'rurogei t'amabost,
Zemendin azkenean
Batzartuta gagoz;
Zemendin azkenean
Batzartuta gagoz,
Mila beratzi-reun'ta
'rurogei t'amabost.

1)
Lemoako Herriak
Seme argi bat du,
Gaur hemen batzar hontan
Ospatutzen dugu;
Gaur hemen batzar hontan
Ospatutzen dugu,
Lemoako Herriak
Seme argi bat du.